

ARTZAIYA.

¡Zer bizitza gozoa
Dezun, artzaiya!
Guziz errugabea;¹
Chit pozgarriya;
Mendi gañean,
Bizitzen zera chaol
Chiki batean.

—
Ez dezu ezagutzen
Atsekaberik,
Arkitzen zera beti
Pozez beterik,
Aditurikan
Chorichoen gorgorak
Echolatikan.

—
Egun-sentiyan pizkor
Jaikitzen zera,
Ardi t'arkumechoak
Ateratzera
Zelaiyetara,
An bazkatu ditezen
Chit nayerara.

—
Kantatzen irten zera
Zaude kantatzen,
Zure bizimodua
Kantaz ospatzen;
Dago zelaiya
Ardiz estaldurikan
Ikusgarriya.

Jayetan zeranean
Jasten errira,
Gutiziz² egoten naiz
Zure begira,
Gogoratzean
Zeñ ongi bizi zeran
Baso-tartean.

—
«Jauna—esaten dezu,
Auspez jarririk—
Zeru garbiya dago
Urrez jantzirik,
Mardul belarra
Zelai usaitzuetan,
Eder ibarra.»

—
«Mendiyak jasotzen du
Lerden burua,
Esanik zeñ aundiya
Dan Zure eskua;
Egazitchoak
Kantatzen dizkitzute
Soñu gozoak.»

—
«Nik ere ezagutzen det,
Jaun maitatiya,
Zerala gure Egille
Miragarriya;
Gurtutzen³ zaitut;
Biotz-arimak zугan
Alchatzen ditut.»

(1) Errugabea, errueza=Inocencia.

(2) Gutizia=Envidia.

(3) Gurtu=Adorar.

«Ez diot gutizirik
Aberatsari,
Zillar-artean bizi
Dan gizonari;
Zorionean,
Gozoro bizitzen naiz
Zelai gañean.»

Onela bizitzen da
Erruezean,
Echola chikiyaren
Tellatupean,
Nekerik gabe;
Atsegiña da beti
Beraren jabe.

ECHEGARAY-KO KARMELOK

Santander-en Illbeltza-ren 18-an 1883-an

NOTICIAS BIBLIOGRÁFICAS Y LITERARIAS.

Leemos en *El Noticiero bilbaino*:

«El viajero español Sr. Abargues de Losten ha disertado en la seccion geográfica de Madrid sobre sus viajes por el reino de Abisinia. Curioso ha sido todo lo que ha dicho sobre las costumbres de aquel país, pero debemos tomar nota especial de una de sus observaciones. Entre los idiomas de Abisinia figura el galo que pertenece á los completamente aborígenes ó primitivos, y es cosa notabilísima por esta circunstancia el que la actual lengua gala ofrezca bastantes palabras del vasco con la misma significacion y el mismo valor fonético en ambos idiomas; rara coincidencia, añade el periódico madrileño de que tomamos esta noticia, que ha de ser difícil de explicar.

»No sabemos si al hacer esta observación, el viajero la ha limitado á los breves aunque precisos términos en que llega á nuestro conocimiento; y convendría muchísimo al progreso de los estudios de que son objeto en todo el mundo culto la lengua euskara ó vasca y su procedencia, que alguno de los que se dedican á este estudio apelara á la ilustracion y el patriotismo del Sr. Abargues, para obtener de éste noticia completa de sus observaciones acerca de analogías entre los dos citados idiomas.

»Una consideración nos mueve á no encarecer esta conveniencia, y es la de que el ilustre P. Fidel Pita no habrá dejado de asistir á la conferencia del Sr. Abargues, y se habrá apresurado á recoger de sus lábios todo lo que pueda interesar á los estudios del euskaro,